

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Landare kontuak

INOIZ ETORRIA IZANGO DA haziren bat Seychelleetatik *Zumaiami*-ra urez, gazi-gazi. Flyscharen historia liburuan milioika urtetako beratarren genealogia irakurritakoan, zirrara-zotinek malkoren bat dantzatuko zioten. Izar berriak, beste zero bat ezagutuko zuen paisaia liluragarriko artadi urdinen gainean. Arte ederren koadrilako landare txikerragoz geroxeago jabetuko zen. Horietako batzuk, itsasoaren burrundaren barealdi apurretan, orroka entzungo zituen. Orro latza, Urola errioko paradisua betirako galtzera doazen espezieena. Azken zori txar horri iskin eginda, baina haren usaina aditzen, ezagutuko zuen gartxu hostozabala, *Phillyrea latifolia*. Seychelletakoak eta zumaiamitarrak, entzuterik izan gabekoari bezala begiratu ondoren egingo zituzten elkarren ezagutzak.

Gartxuak, azken milioika urtetako glaziazioen arteko klima lehor eta beroko aldietan, bere asabak Mediterraneotik abiatuta Ebro ibaiaren arro emankorrean barrena igo eta Kantauri aldeko kabi gozo hau nola topa-

tu zuten azalduko zion. Bere historia, flyscharen orri dotoreetan egundo inprimatu gabe, ibai handiaren mausarretan dabilela. Klima aldaketa dela eta, Mediterraneotik etorri zireneko garai haren tankera hartzen diola datorrenari. Itsasoak gorago lurrak bustiko dituela, baina berrozalea eta lehorzalea izanik, datozen mendeetarako aurrikusten duten mauka paregaberako antolatzen ari dire-

la ere esango zion gartxuak. Hemen den aldaketa hau medio, hotza gutuko duten landareak ihesari eman diotela eta hauek utzitako lurrak bereganatzeko ezkutuko trikimailu ugariz osatutako estrategia abian dutela. Ostera Ebron barrena datozen landare berriei aurrea hartu nahia azaldu dio, gartxua bera bezalakorik ez baita etorriko: beherakoa eta ahoko legarrak sendatzen dizkie ontzi koxkor batzuetan itsasoan barrena ibiltzen diren bi hankadun horiei, baita ontzi horiei berriak balira bezala eutsiko dioten bernizak ere eman egurretik. Kuliskak, mokoa basan, baietz dio...



Phillyrea latifolia, gartxua.



JAKOBA ERREKONDO

Kuku

Kukuaren garaia etorri da. Txori luki amarrutsua oihartzunaren urteroko azterketa teknika egiten ari da, jo eta su, txanbelin asko. Donostiako Ulia mendiaren egutera aldean kukuaren aurretik mendebala ibili zen jo eta su. Jo eta hautsi pinua eta aldamenekoan kuku gelditu. Honek kuku daukanari eutsi eta txanbelin agertzen nahikoa lan badu.

Esaera

“Azak eta porruak
eroan ditu neguak”

497

Landareetan erabiltzen diren 1.100 substantzia baino gehiago ikertuta, urtetako ika-miken ondoren, jakietan etor daitezkeen 497 pestiziden zerrenda argitara eman du Europar Batasunak. Fruitu, barazki, animaliaiki eta ez-tietan onargarriak omen diren pestizida horien mugak ezarri dira. Adibidez, udare batean etor daitezkeen 435 pestizidatetik bakoitza zenbaterainoko kopuruan azaldu daitezkeen mugatzen da. Zerrenda ikusteko: <http://ttiki.com/2891>